

JEAN LOUIS DAVANT.—*Iparraren bila*. Euskal Literatura. Elkar. Donostia, 1986.

Erromantiko kutsua nabari zaio Davanten lehen eleberri honi. Irudimenez, bere burujabetasuna hartu duen Zubernoaren herri tipian kokatzen gaitu eta auzo urrunaren aurka, basa gerla batean sartzerako doak, funtsezko arrazoirik gabe dirudienek. Iraultza garaian jokabide susmagarritzat begiko hartu zutenari egunkari salagarri bat bilatu diote eta hortik datoz arazoak. Horren ondorioak ematen dio argudioaren mamia eta aski ongi eramana da.

Zuberotar idazle honen literaturgintza interesgarria da gure giroan.

* * *

ROBERT LAXALT.—*Kafea hartzea Iruñean*. Itzultzailea: Xabier Mendiguren. Erdal Literatura. Elkar. Donostia, 1986.

Honelako eleberriak premiazkoak zaizkigu euskaraz, ez bakarrik hemengo gaia erabiltzeagatik, baita ere Laxalt-ek eleberrigile bezala erakusten digun ofiziotasunagatik, zeren gure artean ofiziotasunean bai dugu hutsunea, inon hutsunerik izatekotan.

Kontrabando gaia bera ez da lehen aldiz erabiltzen dena gure artean, P. Loti-ren *Ramuntxo* alde batera utzirik, Daskonagerrerena baino aisago, J.A. Loidiren *Amabost egun Urgain'en* ohizko polizi nobela baino hurbilago dago. Kontrabandoak holako gairik ematen du, P. Larzabalek ere erakutsi zigun zenbait antzerkitan baina baita ere hori nabari da J.B. Constantinek Haritchabalet apaizaren bizitzaz idatzi zuen hartan (ikus *Egan* 1985.eko 3-4 alean).

Pirineoko bi alderdietan, kontrabandoa mendiz egiten den herrietako giroa ondo jaso du eta pertsonaiak ondo karakterizatuak, gainera suspentsea berebiziko onduen eramaten du, horietan bere ofiziotasun hori erakusten duelarik. Ez da eleberri luzea, zoritxarrez, zeren gertakariak taxuz eta bizi ematen dituen ez bizkor irakurtzen bait da. Itzultzaileak ere bere maisutasuna erakusten du.

* * *

AINGERU EPALZA.—*Sasiak ere begiak baditik*. Iruñeko udalaren literatur saria 1985, narrazio sailean. Euskal Literatura. Elkar. Donostia, 1985.

Hemen ere, nonbait, kontrabandista zen eleberriko pertsonaia nagusia baina baserritik Don Carlosen armadara joan omen zen eta eleberriak beste bide bat hartzen du. Karlisten gerratea du gaitzat.

Pedro Mari Arrieta, hala ere, kontrabandista girokoa izaki, baztandar asko bezala, eta karlisten soldadu soila izatetik hara hor non bihurtzen den liberalen ofizial, amorante frustatu, mandazain eta lapur. Gertatu ere, pertsonaiari, hilabete gutitan gertatzen zaizkio gora-behera guziak. Beraz, eleberri honetan ez dago aspertzerik.

* * *

JIM THOMPSON.—*1280 arima*. Itzultzailea: Xabier Olarra. Literatura beltza. Elkar. Donostia, 1986.

Argitaratzaileek azalean diotenez, *1280 arima* bortizkeria, kirtenkeria, sexu eta umorez jositako eleberria duzu. Bizi garen